

**ERRONKA DEMOGRAFIKOARI BURUZKO OSOKO BILKURA
PLENO SOBRE EL RETO DEMOGRÁFICO**

2022-05-18 Eusko Legebiltzarra - Parlamento Vasco 18-05-2022

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Legebiltzar buru andrea, legebiltzar kideok, sailburuok, jaun andreok, egun on!

Erronka demografikoa lehen mailako erronka da euskal gizartearentzat.

Erronka horrek baditu arriskuak edo mehatxuak, baina baita aukerak ere.

Arriskuen ikuspegitik, agian handiena oreka galtzea eta faktore demografikoen, sozialen eta ekonomikoen zirkulu negatiboa aktibatzea da.

Azken batean, gero eta zaharragoa den eta gizarte-ehunaren eta giza kapitalaren galera handia duen gizartea eratzeko arriskua dago.

Horregatik, belaunaldi gazteek emantzipatzeko eta familia-proiektuak eraikitzeko dituzten zailtasunak eta atzerapena lehentasunezko kezka dira.

Euskadi, Espainiako Estatuarekin eta Italiarekin batera, jaiotza-tasarik baxuenak dituzten Europako herrialdeen artean dago.

Ikuspegi hori problematikoa da, zalantzarik gabe; baina aukera-alderdia ere badu.

Aukera egokia da berrikuntza indartzeko, barneko eta kanpoko lankidetzak bultzatzeko eta gure giza garapen iraunkorraren eremuan sakontzeko; horren bidez, belaunaldi gazteenei aukera gehiago eta hobeak irekiz.

Arriskuekin batera indargune argiak ditugu: autonomia fiskala, industria-oinarri sendoa, ekonomia dibertsifikatua eta partaidetza kulturari lotutako enpresa-eredua.

Gure gizarte-sarea eta familia- eta komunitate-sarea mundura begira artikulatzeko tradizioa dugu.

Erronka demografikoari zuzenean lotutako *aukerei* erreparatzen badiegu, nabarmentzekoa da bizi-itxaropen osasungarria handitu egin dela, eta migrazio-fluxuek gero eta garrantzi handiagoa dutela.

Gizartearen zahartze prozesua aukera egokia da arlo horretan jarduera ekonomikoa bultzatzeko eta zaintzak indartzeko.

Sektoreen arteko lankidetzeta, erantzukidetasuna eta belaunaldien arteko elkartasuna funtsezko balioak dira ahalegin horri eusteko.

Erronka demografikoa zaila eta konplexua da. Hala ere, aukera bikaina da.

Nire hitzaldia ikuspegi errealista eta positibo horretatik bideratu nahi dut eta lau ataletan banatuko dut:

-Bat: Diagnostiko orokorra;

-Bi: Aurrekariak;

-Hiru: Legegintzaldiaren hasieratik egindako lanaren laburpena; eta

-Lau: 2030 urtera begirako ikuspegia.

Comienzo por compartir un Diagnóstico general de la situación.

La Comisión Europea ha hecho público este pasado mes de marzo el Informe de Prospectiva Estratégica. Define cuatro tendencias mundiales clave:

-Transición energético-medioambiental frente al cambio climático;

-Hiper-conectividad y transformaciones digitales como claves para la transición tecnológico-digital;

-Presión sobre los valores y modelos democráticos de gobernanza; y

-Desiguales movimientos demográficos.

Según las estimaciones de este Informe la población del mundo alcanzará los ocho mil quinientos millones en 2030 y los nueve mil setecientos millones en 2050.

Este crecimiento será muy desigual.

En muchas de las economías avanzadas se producirá un estancamiento, o incluso un descenso.

Se espera que la población de la Unión Europea caiga hasta los 420 millones, un 4,3% de la población mundial.

En Asia, la década de 2040 podría representar un punto de inflexión. Se estima que a partir de 2050 podría iniciar una disminución de su población.

En el caso de África, se prevé que la población se expanda desde los mil doscientos millones de 2017 a los mil ochocientos millones en 2035.

En 2050, India, China, Nigeria, EEUU y Pakistán serán los cinco países con mayor población.

La cuestión demográfica constituye una problemática de máxima complejidad en sus causas, expresiones, consecuencias y, también, en sus soluciones.

Honestamente y con toda humildad, esta es la primera constatación que debemos compartir.

En este ámbito no funciona el pensamiento simple. Debemos considerar factores personales, familiares, antropológicos, históricos, sociales, religiosos, culturales, geográficos, económicos y políticos.

En materia demográfica, las respuestas no son “soluciones automáticas” que actúen mediante el mecanismo causa-efecto.

Las respuestas deben considerarse como procesos sostenidos de actuaciones múltiples y articuladas.

Además, los resultados no pueden esperarse a corto plazo.

Con la misma claridad debemos afirmar que la situación demográfica en Euskadi no es buena. Tampoco lo es en el Estado o en el conjunto de la Unión Europea.

Nuestra realidad demográfica forma parte de una tendencia general en el conjunto de la Unión Europea y de las economías avanzadas.

En Euskadi, el descenso de la natalidad, la emancipación tardía, el retraso en la edad de la maternidad y la mayor esperanza de vida, han derivado en un envejecimiento de la población.

Esta tendencia no es repentina ni exclusiva del siglo XXI. Se remonta a los cambios culturales y económicos producidos en los 70 y 80 del pasado siglo.

La crisis económica de los 80 retrasó los procesos de emancipación en las nuevas generaciones, y dificultó el despliegue de construcción de nuevos hogares y familias.

Un progresivo cambio cultural y de mentalidad modificó, además, la escala de prioridades en el desarrollo de los proyectos de vida en el ámbito personal, profesional o familiar.

En este sentido, debemos constatar que esta nueva realidad ha sido favorecida por motivos que son claramente positivos.

Me refiero al reconocimiento y ejercicio efectivo del derecho de las mujeres a decidir sobre su maternidad, su incorporación al mercado de trabajo y la participación en la vida pública. La incorporación de la mujer al mundo laboral ha sido un cambio radical positivo que debemos reforzar y además ayudar a su conciliación con la vida personal y familiar.

Me refiero, también, a la universalización del derecho a la salud, la educación y los servicios sociales.

Todo ello ha posibilitado una conciencia de toma de decisiones individuales por encima de hábitos sociales y culturales heredados.

Este conjunto de factores se ha traducido en una brusca caída de la natalidad, algo mayor en Euskadi que en la Unión Europea.

La edad media de emancipación de la juventud vasca es de 30,2 años. Es cuatro años más tardía que la media europea, 25,9.

En 2020 las personas de 18 a 29 años consideraban como edad ideal para emanciparse los 24 años y medio. Este mismo dato se confirma en el Estudio del Gabinete de Prospecciones Sociológicas presentado el pasado 5 de mayo.

Las dificultades de las personas jóvenes para emanciparse constituyen un factor clave para el retraso en la construcción de proyectos de familia y en la edad para tener el primer hijo o hija.

Esta realidad influye, a su vez, en los bajos datos de natalidad y dificulta el reemplazo poblacional, tanto para responder a las necesidades del mercado laboral, como para el sostenimiento de los sistemas de solidaridad intergeneracional.

La edad media con la que las mujeres vascas tienen su primer hijo o hija es de 32,6 años frente a la edad media europea de 29,2.

Según el Estudio del Gabinete de Prospecciones Sociológicas la edad preferida y declarada por las jóvenes vascas para su primera maternidad son los 28 años.

De acuerdo a los resultados de distintas encuestas realizadas, las jóvenes manifiestan mayoritariamente que su deseo sería tener, al menos, dos hijos/as.

Sin embargo, la tasa de natalidad en Euskadi es de 1,28 por mujer. Junto a Italia es una de las más bajas de Europa, con una media de 1,53. La tasa en Francia es de 1,96 y en Suecia de 1,85.

El Fondo de Población de Naciones Unidas considera que el nivel de reemplazo demográfico se obtiene con una tasa superior a 2,1.

En el sistema educativo, la etapa de Infantil ha perdido casi 11.000 matrículas en Euskadi en los últimos seis cursos por el desplome de la natalidad.

Lógicamente, esta realidad también afecta a la perspectiva de reposición de mano de obra en el mercado laboral.

En los últimos 20 años, la población en edad laboral en Euskadi se ha reducido en 92.000 personas. La previsión es que se reduzca en 220.000 personas más para 2050.

Así, en las próximas tres décadas, será necesario incrementar la población en edad de trabajar en cerca de 400.000 personas.

En este contexto, no cabe duda de que la inmigración contribuirá a paliar en parte esta necesidad.

Estos datos también afectan a la sostenibilidad de las políticas sociales. Debe tenerse en cuenta que la población dependiente, personas jubiladas en su mayoría, seguirá en aumento. En 2050 puede suponer prácticamente la mitad del total de la población.

Este panorama que cabe calificar *como invierno demográfico o declive demográfico* se ha visto agravado por la sucesión de las últimas crisis globales.

La crisis de 2008 no contribuyó a mejorar la situación. La pandemia ha generado condiciones desfavorables. Las consecuencias socio-económicas de la invasión de Ucrania supondrán un factor de retraso en la recuperación demográfica.

Esta problemática no se expresa de igual modo en todos los territorios. En determinadas zonas del Estado, por ejemplo, el principal déficit demográfico es el despoblamiento rural o la “España vaciada”.

En Euskadi, el Reto demográfico significa la necesidad de actuar sobre cinco grandes ejes que estructuran la Estrategia que el Gobierno Vasco ha planteado:

- Emancipación de las personas jóvenes;
- Construcción de proyectos de familia;
- Vida autónoma y plena de las personas mayores;
- Inserción migratoria; y
- Revalorización rural.

Hasta aquí el diagnóstico, me centro a continuación en compartir los antecedentes con los que contamos.

Aurrekariak

Arazo hau ez da berria. Azken hamarkadetan mamitu egin da. Erantzunak ere ez dira berriak. Ez gara hutsetik abiatzen, ibilbide tinko batetik baizik.

Azken urteotan, euskal erakundeek errealitate demografikoan eragina izan duten jarduerak gauzatu dituzte: kontziliazioari, enpleguari, etxebizitzari edo gizarte-babesari zuzendutako politika publikoen bidez.

Duela sei urte, 2016ko Gobernu Programak, erronka demografikoa ezarri zuen gure Erkidegoaren lau erronka handienen artean.

2017an, *Familietan eta Haurtzaroan Inbertitzeko Estrategia Dokumentua* aurkeztu zen, aditu eta akademiko talde zabal baten laguntzarekin egina.

2018an, Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiek eta EUDELek Familien eta Haurren aldeko Euskal Ituna sinatu genuen, aldez aurretik Familiaren Euskal Kontseiluak aho batez onartuta.

Itun horrek bi errealitateri erantzun nahi die: batetik, jaiotza-tasa baxuei; eta, bestetik, desberdintasunaren eta pobrezia-egoeren belaunaldien arteko transmisioari.

Abiapuntu horrekin, 2018ko martxoan, Familiei Laguntzeko Erakunde arteko laugarren Plana onartu zen legebiltzar honetan, 116 jarduketa biltzen dituena.

2018an izandako gai bakarreko osokoan onartutakoaren iraupe epea indarrean dago. 2020an egindako ebaluaketaren arabera aurreikusitako 116 neurritatik %76 abian ziren.

Legegintzaldi honetan, *“Euskadi martxan” Gobernu Programak*, hamar herri-helburuen artean honako hau finkatzen du: “jaiotza-tasak %10 handitzea”.

Programak 2030erako Erronka demografikoaren arloan estrategia bat aurreikusten du, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak koordinatuta.

Horrekin batera, helburu demografikoa Jaurlaritzak garatutako jarduera garrantzitsu ia guztietan jasota dago:

-Soldata-arrakalaren aurkako estrategiak erronka horri estuki lotutako jarduerak planteatzen ditu,

-*Ekonomia Suspertzeko eta Enplegua Sustatzeko Berpiztu Programak* erronka eta aukera handizat jotzen du biztanleriaren zahartzea.

-Euskadi Next Programak Erronka demografikoari zuzenean lotutako proiektuak biltzen ditu.

-Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila *2018-22 aldirako Familiei Laguntzeko Erakunde arteko laugarren Plana* garatzen ari da.

-En materia de conciliación de la vida familiar y laboral se han introducido medidas avanzadas para las personas que trabajan en el sector público. La más destacada es el permiso, no transferible, de 16 semanas para cada miembro de la pareja y, adicionalmente, el permiso de lactancia de 150 horas.

-Se han mejorado, en el sector público y privado, las ayudas a la conciliación para el cuidado de familiares en situación de dependencia y se han reorientado las ayudas a personas trabajadoras en situación de excedencia para garantizar la cobertura económica de las excedencias por paternidad.

-Se ha dispuesto una prestación económica para la cobertura de excedencia laboral de hasta 16 semanas no transferibles para la persona progenitora no gestante durante los 12 meses posteriores al nacimiento o adopción.

-Se está elaborando el *segundo Plan Estratégico de Servicios Sociales*. Se orientará a promover una política de transición en los cuidados sociales reforzando el cuidado institucional y reduciendo el peso del cuidado familiar.

-El Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales y EUDEL hemos aprobado la *Estrategia de Atención Socio-sanitaria de Euskadi* y la *Estrategia Socio-sanitaria de Apoyo a Familias Cuidadoras*.

-La Ley vasca de juventud, aprobada en marzo, incide en el objetivo del adelanto de la edad de emancipación, para situarla en los 28 años en 2030.

-Se está ultimando la “Estrategia Vasca de Emancipación Juvenil 2030”.

-Desde el Departamento de Trabajo y Empleo se ha impulsado la *Estrategia Vasca de Empleo 2030*. Prioriza el apoyo al acceso de las y de los jóvenes al empleo de calidad y atiende las consecuencias del envejecimiento sobre el empleo y el relevo generacional.

-Contempla la necesidad de una política de inmigración para responder a las necesidades del mercado laboral y sostener el estado de bienestar.

-El Plan Director de Vivienda 2023 tiene como primer eje vertebrador el fomento del alquiler asequible. Uno de sus objetivos es otorgar 4.500 ayudas al pago del alquiler a las personas jóvenes a través del programa Gaztelagun.

-Además, se va a ampliar el parque público de alquiler destinado a jóvenes. Todo ello desde una perspectiva transversal que conecta el plan con las políticas de juventud y el conjunto de políticas sociales.

-En materia de vida autónoma y plena de las personas mayores, contamos con el *plan de envejecimiento activo*, el servicio *Beti On*, la tarjeta electrónica o la telemedicina en el sistema sanitario.

-Adinekoekin lagunkoiak diren hiriak sustatzeak bultzada handia jaso du, besteak beste, *Euskadi Lagunkoia Sustraietatik* tresnekin.

-*Zahartze aktiboko eta adineko pertsonetikiko gobernantzako estrategiak* ere garatu dira.

-Migrazioaren inklusioari dagokionez, abenduan onartu zen 2022-25erako Herriartasunaren, Immigrazioaren eta Asiloaren Kulturarteko laugarren Plana. Aurrera doa Kultura Aniztasuna Kudeatzeko Euskal Ereduaren eraikuntza, nazioarteko migrazioen eta asiloaren eremuan.

Laburbilduz, azken urteotan euskal erakundeek errealitate demografikoan eragin duten jarduerak gauzatu ditugu, familiei, kontziliazioari, erantzukidetasunari, enpleguari, etxebizitzari, migrazioari edo gizarte-babesari zuzendutako politika publiko aitzindari eta berritzaileekin.

Jarduera horiek Erronka demografikoari erantzun integrala emateko zein eremutan jardun behar den jasotzen dute. Batez ere gazteen emantzipazioa aurreratzeko eta familia berriak eratzeko; baita gizartearen zahartzeari, migratzaileen inklusioari eta landa-eremuko errebalorizazioari erantzunak emateko ere.

Hala eta guztiz ere, krisien eraginaren ondorioz, biztanleriaren zahartze-joerak bere horretan jarraitzen du, emantzipatzeko batez besteko adinean ez da aurrerapenik ikusten, eta jaiotza-tasen beheranzko joera ere ez da leheneratzen.

Testuinguru horretan, ezinbestekoa da erakundeen eta gizartearen arteko Estrategia bat definitzea, eman beharreko erantzuna sendotzeko eta indartzeko.

Erantzun horrek bi gako izan behar ditu kontuan:

-susperraldi demografikoak epe ertain eta luzera proiektatu behar diren eraldaketen prozesu iraunkorra eskatzen du; eta

-egungo joerak aldatzen lagunduko duten epe laburreko inpaktu-jarduerak identifikatu behar dira.

Sobre estas bases y antecedentes, describiré a continuación los pasos que hemos dado desde el inicio de esta legislatura. Entro en el tercer apartado:

Resumen del trabajo desarrollado la presente Legislatura.

Nuestro Programa de Gobierno establece el reto demográfico como uno de los diez objetivos de país y prevé la elaboración e impulso de una *Estrategia vasca 2030* de carácter interdepartamental, interinstitucional y social.

Desde principios de 2021, el Gobierno Vasco impulsó un proceso de trabajo con carácter interdepartamental que se extendió hasta el mes de junio.

A partir de ese momento, el proceso fue compartido con las Diputaciones Forales. Esta segunda parte se extendió hasta noviembre de 2021.

El 14 de diciembre el “Documento de trabajo” resultante fue presentado en los Consejos de Gobierno, tanto de las Diputaciones Forales como del Gobierno Vasco, para su conocimiento.

Estos documentos fueron remitidos al Parlamento Vasco y EUDEL y fueron puestos a disposición pública.

Hasta el 31 de marzo se abrió un periodo de recogida de aportaciones por parte de las instituciones, los Grupos Parlamentarios, EUDEL y los Ayuntamientos; así como por parte de los distintos actores sociales y de la propia ciudadanía.

Entre las aportaciones recibidas cabe destacar que el 10 de marzo la Comisión Ejecutiva de EUDEL acordó “validar el documento Propuesta de bases de la Estrategia Vasca 2030 para el Reto Demográfico como punto de partida para iniciar el camino de recuperación demográfica en Euskadi”.

Es importante también recordar que, mediante Proposición No de Ley, el 29 de octubre de 2020, el Parlamento Vasco instó al Gobierno Vasco a elaborar un Plan sobre reto demográfico, y cito textualmente; *“de carácter interdepartamental e interinstitucional para el desarrollo de políticas públicas de fomento de la natalidad, de ayuda a la conciliación laboral y familiar, de impulso del envejecimiento activo, de promoción de la igualdad efectiva entre mujeres y hombres y de lucha contra el despoblamiento rural, entre otras”*.

Con la presentación el mes de diciembre de 2021 de esta documentación al Parlamento Vasco, el Gobierno Vasco ha cumplido con la petición planteada por esta Cámara.

Este debate monográfico, por otra parte, constituye una buena oportunidad para completar el proceso participativo abierto a final del año pasado.

Nuestra previsión, una vez conocidas las aportaciones de hoy, es proceder a su valoración e incorporación a la propuesta de Estrategia.

El objetivo es que esta Estrategia pueda contar este mes de junio con una aprobación definitiva.

De este modo, paso al cuarto apartado de esta exposición.

Enfoque 2030 de la Estrategia vasca del Reto demográfico.

Resumiré el contenido de la propuesta del Gobierno Vasco.

El punto de partida se centra en el diagnóstico de la complejidad de esta problemática y su evolución, así como el balance y valoración del trabajo realizado en los últimos años por las instituciones vascas.

Las fortalezas de lo realizado, junto a sus ámbitos de mejora, y las nuevas necesidades que plantea la realidad demográfica, permiten identificar con rigor la línea de salida de esta nueva etapa que se quiere impulsar.

Se identificaron, por una parte, aquellas iniciativas en marcha y cuya profundización sigue siendo necesaria; por otra, aquellas de nuevo cuño que deben articularse para posibilitar un cambio de tendencia en el declive demográfico. Contamos en total con 37 iniciativas.

Cabe destacar cuatro nuevas propuestas:

•**Primera.** Articular una ayuda directa de 200 euros al mes por hijo o hija a cargo hasta los tres años, en línea con los “Programas de los 1.000 primeros días” promovidos por UNICEF.

•**Segunda.** Habilitar programas de préstamos subsidiados o sin intereses y de devolución a largo plazo para proyectos de emprendimiento, formación o vivienda para jóvenes.

•**Tercera.** Garantizar la gratuidad en la etapa de 0-2 años reforzando el Consorcio Haurreskolak.

•**Cuarta.** Incorporar la perspectiva demográfica en la elaboración de normas, estrategias, planes o programas de inversión, modificando la Ley 8/2003 sobre el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

La ayuda directa de 200 euros al mes por descendiente hasta los tres años se contemplará para familias que no superen una renta estandarizada superior a 100.000 euros y será compatible con las deducciones fiscales actuales y con las ayudas por hijo o hija de la RGI.

Hasta los tres años, las familias percibirán 2.400 euros al año por descendiente. Además, contarán con el ahorro que supondrán las deducciones fiscales: por un hijo o hija, 950 euros anuales; por dos, alrededor de 2.100 euros.

Si la familia no dispone de recursos suficientes contará también con las ayudas de la RGI por hijo o hija a cargo.

A estas medidas se une la ampliación de ayudas al alquiler hasta 275 euros mensuales del programa Gaztelagun. También los programas de préstamos para vivienda, formación o emprendimiento; la gratuidad de las Haurreskolak de 0-2 años; o medidas de refuerzo de la conciliación.

Una familia con dos hijos o hijas puede recibir, cada año y hasta los tres años, 6.900 euros en ayudas y deducciones fiscales; a lo que se añaden las ayudas al alquiler de la vivienda, la gratuidad de la guardería y las ayudas a la conciliación.

Además, se mantendrán las actuales ayudas a las familias numerosas entre los cuatro y los siete años

Con este conjunto de medidas estamos configurando un ecosistema de condiciones favorables para la emancipación y la construcción de familias.

Una ayuda directa de 200 euros al mes en un horizonte inicial de tres años se alinea con un criterio promovido por Naciones Unidas. Los “Programas de los 1.000 días” están basados en un concepto de UNICEF que subraya el carácter determinante de los 3 primeros años de vida para el futuro de un niño o niña.

Recomienda UNICEF que las Administraciones públicas centren sus inversiones en los primeros 1.000 días, y se aseguren de que las familias reciben el suficiente apoyo para dotar al niño o niña de una vida con condiciones adecuadas.

Esta medida extraordinaria hasta los tres años entrará en vigor en 2023 y será compatible con las deducciones fiscales, las ayudas mediante RGI, las ayudas al alquiler, los préstamos o las medidas de conciliación que se mantienen, también, después de los tres años.

En cualquier caso, no hay medidas que por sí solas tengan efectos milagrosos.

La apuesta es impulsar un sistema de ayudas sostenido y sostenible que cree un marco de condiciones favorables, tanto para la emancipación como para que las familias tengan los hijos o hijas que desean, cuando lo desean, sin retrasos forzados por la falta de condiciones.

Erronka Demografikoaren Estrategiak guztira 37 jarduera aurreikusten ditu.

Nabarmentzekoak dira gazteei etxebizitza eskuratzen laguntzea helburu duten ildoak, gazteen enpleguaren talka-plan bat, edo kontziliazio erantzukiderako politikak indartzen dutenak.

Ekimen-multzo hau lau ardatzetan egituratzen da:

- Gazteen emantzipaziorako laguntzak;
- Familien proiektuak eraikitzen laguntzea;
- Adinekoen bizitza autonomoa eta osoa sustatzea; eta
- Migrazio-gizarteratzea bultzatzeko politikak.

Ekimen horietatik hiruk zeharkako izaera dute: Landa-balioa handitzea; Prospekzioa, dibulgazioa eta komunikazioa; eta Aurrekontua.

Ekimen berrien artean, lau proposamen nabarmentzen dira:

- Lehenengoa.** 200 euroko laguntza zuzena hilean ardurapeko seme edo alaba bakoitzeko, hiru urte bete arte.
- Bigarrena.** Gazteentzako ekintzailtza-, prestakuntza- edo etxebizitza-proiektuetarako epe luzeko mailegu subsidiatu edo interesik gabeko eta itzulketako programak prestatzea.
- Hirugarrena.** Doakotasuna bermatzea 0-2 urteko etapan, Haurreskolen Partzuergoa indartuz.
- Laugarrena.** Arauetan, estrategietan, planetan edo inbertsio-programetan ikuspegi demografikoa txertatzea.

Aurreneko proposamena, hau da hilean 200 euroko laguntza zuzena hiru urte bete arte, 100.000 euro baino gutxiagoko errenta dutenei emango zaie. Laguntza hau 2023garren urtean onartuko da eta bateragarria izango da egungo zerga-kenkariekin eta baita ere Diru Sarrerak Bermatzeko Errentarekin.

Neurri horrek hainbat laguntza eta estaldura indartuko ditu, emantzipaziorako eta familiak eraikitzeke baldintza egokien ekosistema egituratuko dutenak.

Bi seme-alaba dituen familia batek, urtero eta hiru urte bete arte, 6.900 euro jaso ditzake zuzeneko laguntza eta kenkari fiskalen bidez. Horrekin batera, etxebizitzaren alokairurako laguntza, haurtzaindegia doakotasuna eta kontziliaziorako laguntza ere jaso ditzake.

Hiru urteren ondoren, eta adin-nagusira iritsi arte, zerga-kenkariak, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren bidezko laguntzek, alokairu-laguntzek, maileguek edo kontziliazio-neurriak jarraituko dute.

Hasierako hiru urteetan hileko 200 euroko laguntzak UNICEFek sustatutako "Lehenengo 1.000 egunetako programaren" irizpidea jarraitzen du.

Ez dago ondorio miragarriak dakartzan neurririk.

Horregatik apustua osoa da. Laguntza-sistema iraunkor eta etengabea sustatuko da, aldeko baldintzen esparrua sortuko duena, bai emantzipaziorako, bai familiek nahi dituzten seme-alabak izan ditzaten, nahi dutenean.

Azken batean, estrategia horrek ikuspegi integrala du, eta etxebizitzaren, enpleguaren, hezkuntzaren, osasunaren, gizarte-osasunaren eta gizarte-prestazioen arloko politikak barne hartzen ditu.

Hiru adibide nabarmenduko ditut.

Lehenik eta behin, 2030erako Gazteen Euskal Estrategiaren helburuetako bat gazteen migrazio- eta mugikortasun-proiektuei laguntzea izango da.

Lau ardatz hauek planteatuko ditu:

- Mugikortasun-proiektuetan parte hartzen duten euskal gazteak atxikitzea;
- Atzerritar jatorriko gazteak erakartzea;
- Migrazio-proiektu bat duten gazteak eta familiak itzultzea; eta
- Migratzen ari diren euskal gazteen eta Euskadirekin alde aurretik harremana izan duten atzerritarren arteko lotura.

Hartzaileak 20 eta 40 urte bitarteko pertsonak izango dira, seme-alabak dituzten eta itzultzeko asmoa duten familiak barne.

Destaco por ser muy reciente la nueva orden del programa Gaztelagun que regula el alquiler de vivienda para jóvenes, aprobada en el Consejo de Gobierno del 26 de abril.

Con el objetivo de favorecer la emancipación de personas jóvenes amplía el número de personas que pueden acceder al programa, el tiempo de percepción hasta los 36 años y la cuantía mensual de las ayudas hasta los 275 euros.

Cabe destacar también la trascendencia del ámbito de la inserción migratoria. Resalto en este sentido la importancia de la transferencia de la competencia en materia de migración y permisos de trabajo, que considero prioritaria.

Este hecho puede constituir un hito para desarrollar un modelo vasco de atracción, acogida e integración laboral de la migración en Euskadi.

La aplicación de este modelo, además de cumplir con lo previsto en el Pacto Social Vasco para la Migración, debe permitir generar una incidencia positiva en nuestra realidad demográfica en los próximos años y décadas.

En definitiva, el primer objetivo de esta Estrategia es promover un cambio en la tendencia negativa tanto en la edad de emancipación como en las tasas de natalidad para transitar hacia un escenario de recuperación demográfica.

El segundo es que este cambio de tendencia y las actuaciones que lo impulsen sean sostenidas y sostenibles en el largo recorrido, así como su pleno alineamiento con los Objetivos de Desarrollo Sostenible de la Agenda 2030 de Naciones Unidas.

La Estrategia y todas las actuaciones están informadas por la perspectiva de género.

La Estrategia del Reto demográfico parte del reconocimiento del profundo proceso de cambio en que se encuentran inmersas las estructuras familiares. Promueve el apoyo de esa diversidad familiar, la igualdad de trato y la no discriminación de personas y familias.

Egoera demografikoa lehentasunezko kezka da, bai tokiko ikuspegitik, bai ikuspegi globaletik ere.

Nazioarteko erakundeek gonbita egiten dute demografiaren gainbeherari eta biztanleriaren zahartzeari lehentasunik handiena emateko. Gai hau Nazio Batuen 2030 Agendaren begirada estrategikoaren parte da.

Balantzerik onenak eskaintzen dituzten herrialdeek baliabide gehiago eskaintzen dituzte gazteen bizimodu independenteko proiektuak sustatzeko; eta familiei zuzeneko laguntza ekonomikoak ematen dizkiete, seme-alaba bakoitzeko.

Aurkeztutako dokumentazioan ikus daitekeenez, Frantzia eta Suediako ereduak erreparatu diegu bereziki. Beherakada demografikoari emandako erantzunean emaitzarik onenak izan dituzten herrialdeak direlako.

Nos encontramos ante un riesgo. También ante una gran oportunidad de futuro.

Las próximas semanas contaremos con un marco estratégico común y transversal.

Se articulará con las aportaciones de este Parlamento como un Plan de País. Una Estrategia con la mirada puesta en 2030.

A todas y todos, al espíritu del bien común, conviene e interesa que en esta materia podamos actuar sobre la base de grandes acuerdos.

Es necesario un gran consenso para hacer frente a este Reto demográfico. Está en juego la proyección de Euskadi en el horizonte 2030 y las próximas décadas.

Eskerrik asko!